

Erreferentzia bibliografikoak euskaraz. Vancouver estiloa jarraituz

Aurkibidea:

1. Ingelesetik euskarara
2. Puntuazioa
3. Paperean argitaratutako dokumentuak:
 - Aldizkarietako artikuluak
 - Liburuak
 - Liburu baten kapitulua
4. Interneten argitaratutako dokumentuak:
 - Interneten: Aldizkarietako artikuluak
 - Interneten: Liburuak
 - Web guneak
 - Web gune bateko orria
 - Datu-base bateko gaia (Uptodate, Dynamed)

Dokumentu hau Donostialdea ESiko liburuzainek (Eukene Ansuategi eta Marimar Ubeda) 2018ko maiatzean egin dute eta hemen dagoen informazioa liburu honen laburpen bat da:

Patrias K. Citing medicine: the NLM style guide for authors, editors, and publishers [Internet]. 2. ed. Wendling DL, arg. Bethesda (MD): National Library of Medicine (US); 2007 -[Eguneratuta 2015-10-2; Kontsulta: 2018-05-22]. Eskuragarri: <http://www.nlm.nih.gov/citingmedicine>

1. Ingelesetik euskarara

Ingelesez	Euskaraz
Internet	Internet
cited	Kontsulta
cited 2007 Jan 4	Kontsulta: 2017-01-4
updated	Eguneratuta
Available from	Eskuragarri
In	Hemen
p.	Or.
ed.	argit.

Euskarazko laburdurak: <http://joana-albret.iametza.com/index.php?act=laburdurak>

2. Puntuazioa

Egileak	Komekin separatuta
Egileak eta izenburuaren ondoren	Puntu
Aldizkariaren bolumena eta zenbakiaren ondoren	Bi puntu
Urtea ondoren	Puntu eta koma
Argitaletxearen tokia ondoren	Bi puntu

3. Paperean argitaratutako dokumentuak:

Aldizkarietako artikulak

1. Abizenak osorik jartzen dira eta izenaren lehenengo letra, komarik gabe. Egile guztiak aipatuko ditugu.
2. Egile desberdinak komarekin jarraituta.
3. Aldizkariaren izena laburtua
4. Argitaratze-dataren ordena: urtea, hilabetea, eguna. Hilabetea laburtua jarriko da, lehenengo 3 hizkiak: Urt, Ots, Mar, Api, Mai, Eka, Uzt, Abu, Ira, Urr, Aza, Abe
5. Ordena: egileak, artikularen izenburua, aldizkariaren izena laburtua, urtea, bolumena, zenbakia, lehenengo orrialdea eta azkenengo orrialdea

Adibidea (Kontutan hartu puntuazioa):

Railey MT, Railey KM, Hauptman PJ. Reducing Bias in Academic Search Committees. JAMA. 2016 Abe 27;316(24):2595-2596.

Aldizkariaren izena laburtua non bilatu:

- NLM Catalog: Journals referenced in the NCBI Databases: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/nlmcatalog/journals>
- Aldizkariak gaztelianaz: DICE. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Centro de Ciencias Humanas y Sociales: <http://epuc.cchs.csic.es/dice/busqueda.php>
- International Standard Serial Number International Center. List of Title Word Abbreviations: <http://www.issn.org/services/online-services/access-to-the-ltwa/>

Liburuak

1. Abizenak osorik jartzen dira eta izenaren lehenengo letra, komarrik gabe. Egile guztiak aipatuko ditugu.
2. Egilerik ez badago, editorea edo itzultzailea jarri egin behar da, eta adierazi parentesi artean. Ez badago inor, izenburuarekin hasi erreferentzia bibliografikoa.
3. Ordena: Egileak, liburuaren izenburua, argitaletxearen lekua, argitaletxea, urtea, orriak.

Adibidea (Kontutan hartu puntuazioa):

Fornos Pérez JA. Guía práctica de atención farmacéutica al paciente diabético. Madrid: Sociedad Española de Farmacia Comunitaria; 2012. 192 or.

Liburu baten kapitulua (Contributions to Books)

Liburu bat editore bat edo batzuen izenean dago eta kapituluak egile desberdinak idatzita daude. Erreferentzia bibliografikoa **bakarrik kapitulu batena** da.

1. Abizenak osorik jartzen dira eta izenaren lehenengo letra, komarrik gabe. Egile guztiak aipatuko ditugu.
2. Ordena: lehenengo kapitulu horren informazioa jartzen da (egileak, kapituluaren izenburua) eta "Hemen" hitza ondoren, liburu osoaren informazioa (editoreak, izenburua, argitaletxea, urtea). Bukatzeko, kapitulu horren orrialdeak.

Adibidea (Kontutan hartu puntuazioa):

Armon-Lotem S, Walters J. An approach to differentiating bilingualism and language impairment. Hemen: Guendouzi J, Loncke F, Williams MJ, editors. The handbook of psycholinguistic and cognitive processes: Perspectives in communication disorders. New York: Psychology Press; 2011. p. 463-488.

4. Interneten argitaratutako dokumentuak:

Interneten: Aldizkarietako artikuluak

Paperean argitaratutako aldizkarietako artikuluen argibideak jarraitu eta honako hauek gehitu bihar dira:

1. "Internet" hitza kortxete artean: adierazteko formatu horretan dagoela.
2. "kontsulta" hitza eta data kortxete artean: jakiteko noiz kontsultatu den.
3. "Eskuragarri" hitza eta 2 puntu ondoren url: artikulua horren Interneteko helbidea.

Adibidea (Kontutan hartu puntuazioa):

Sebastian R, Laird AR, Kiran S. Meta-analysis of the neural representation of first language and second language [Internet]. Appl Psycholinguist. 2011 [Kontsulta: 2017-10-12]; 32(4):799-819. Eskuragarri: <http://dx.doi.org/10.1017/S0142716411000075>

Interneten: Liburuak

Interneten dauden liburuak izan daitezke paperean dagoen liburu bat formatu elektronikoan edo, berez formatu elektronikoan sortutako liburua edo gai monografiko bat, ez du inporta luzera.

Paperean argitaratutako liburuen argibideak jarraitu eta honako hauek gehitu bihar dira:

1. "Internet" hitza kortxete artean: adierazteko formatu horretan dagoela.
2. "kontsulta" hitza eta data kortxete artean: jakiteko noiz kontsultatu den.
3. "Eskuragarri" hitza eta 2 puntu ondoren url: artikulua horren Interneteko helbidea.

Adibidea (Kontutan hartu puntuazioa):

Arnaiz S, Espinosa O, Gutierrez E, Losada J, Plata R. Programa general de terapia ocupacional en los hospitales de día de la RSMB [Internet]. Bilbao: Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea = Red de Salud Mental de Bizkaia; 2013 [Kontsulta: 2017-10-15]. 18 or. Eskuragarri: http://lmentala.net/admin/archivosboletin/Terapia_Ocupacional_en_la_RSMB_080213.pdf.

Web guneak

Webgune bateko aipamena hasiera-orrian (homepage) aurkitutako informazio nagusia hartuta egiten da. Webguneak erakundeek edo gizabanakoek egindakoa izan daitezke, gai bati buruzko informazioa eskaintzeko edo ikuspuntu pertsonalerako foro bat eskaintzeko.

Webgune baten erreferentzia bibliografikoa egiteko, Interneteko liburuen antzekoak dira: Bilatu egin behar duzu Webgunearen arduraduna (egilea, erakundea), izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea eta argitaratutako data.

Adibidea (Kontutan hartu puntuazioa):

AMA: helping doctors help patients [Internet]. Chicago: American Medical Association; c1995-2007 [Kontsulta: 2007-02-22]. Eskuragarri: <http://www.ama-assn.org/>.

Web gune bateko orria

Web gune bateko orri baten erreferentzia egiteko, lehenengo eta behin erabaki egin behar da ia orri hori independentea den ala ez. Askotan orri hori liburu, aldizkaria edo datu-base bat delako eta horrela aipatu behar da.

Erabakitzen badugu orri hori web guneke zati bat dela, orduan zati edo orri horren informazioa eman behar dugu. Horretarako jarraitu: "Sample Citation and Introduction to Citing Parts of Web Sites" <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/books/NBK7274/#A59530>

Datu-base bateko gaia (Uptodate, Dynamed)

Askotan, web gune baten topatzen dugun informazioa dokumentu independente bat da eta horren erreferentzia egin behar dugu. Adibidez, Dynamed eta Uptodate-ko gai batzozitak egile desberdinak dauzka, beraz datu base baten kontribuzioa da eta jarraitu behar dugu atal hau: Citing Contributions to Databases/Datasets on the Internet <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/books/NBK7273/#A57722>

1. Abizenak osorik jartzen dira eta izenaren lehenengo letra, komarik gabe. Egile guztiak aipatuko ditugu.
2. Ordena:
 - Lehenengo gai horren informazioa jartzen da: egileak, izenburua eta data (noiz argitaratu, eguneratu eta kontsultatu den). Data kortxete artean jarri behar da.
 - "Hemen" hitza ondoren, datu-base osoaren informazioa: editoreak, izenburua, [Internet], argitaletxearen tokia eta izena, eta urtea.
 - gai horren orrialdeak, kortxete artean guk zenbatu ditugulako.
 - Eskuragarri, bi punto eta url helbidea.

Adibidea (Kontutan hartu puntuazioa):

Bauer KA, Leung LLK, Tirnauer JS. Factor V Leiden and activated protein C resistance. 2018 [Eguneratuta: 2018-03-29; Kontsulta: 2018-04-13]. Hemen: Uptodate [Internet]. Waltham (MA): Uptodate. c2018- . [22 or.]. Eskuragarri: <https://www.uptodate.com/>